

## XEDAPEN OROKORRAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA OSASUN SAILA

#### 1370

*HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2018ko urtarrilaren 12koa, Ekonomia-ren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, esneki eta izozkietarako baldintza higienikoak eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko zehatzak onartzen dituena.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako hutsak aurkitu dira Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko urtarrilaren 12ko Aginduaren testuan (2018ko urtarrilaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 19. zk.). Agindu horren bitartez, esneki eta izozkietarako baldintza higienikoak eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko zehatzak onartzen dira. Horrenbestez, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

2018/435 (12/11) orrialdean, lehenengo bi paragrafoen aurretik, (1) eta (2) zenbakiak jarri beharra dago, adierazteko biak daudela lotuta orrialde horretako laukian ageri diren oharrekin. Hortaz, honela idatzita geratuko dira bi paragrafo horiek:

«(1) Estafilokoko-kopuru gehien izango dituen fabrikazio-prozesuan jasotako lagina.  $10^5$  ufc/g baino balio handiagoak hautematen badira, gazta-sortak toxina estafilokozikoa hautemateko probak bete beharko ditu.

(2) Kanpo geratuko dira produktuaren osaerak edo fabrikazio-prozesuak Salmonella arriskua ezabatzen duten produktuak.»

2018/435 (12/12) orrialdean, azken esaldiaren aurretik, b) letra jarri beharra dago; honela idatzita geratuko da, beraz:

«b) Ur-horniduraren jatorriaren arabera, haren edangarritasuna behar bezala zainduko da honako kontrol hauen bitartez.»

2018/435 (12/12) orrialdean, halaber, taulako zenbait gelaxka hutsik ageri dira, eta, hortaz, honako honekin ordeztu behar da:

2018ko martxoaren 14a, asteazkena

Horniduraren jatorria	Parametro analitikoa	Kontrol-maiztasuna
Norbere depositua duen udal-sarea	Hondar-kloro askea eta konbinatua	Egunero
Norbere hornidura	Hondar-kloro askea eta konbinatua	Egunero
	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Parametro Kimikoak: Antimonioa, Arsenikoa, Kadmioa, Zianuroa, Kobrea, Kromoa, Fluorra, Merkurioa, Nikela, Nitratoak, Nitritoak, Beruna, Selenioa.</li> <li>– Parametro adierazleak: Bakteria koliformeak, 22.º Ctara dauden kolonien kontaketa, Aluminioa, Amonioa, Hondar-kloro konbinatua, Hondar-kloro askea, Kloruroa, Kolorea, Eroankortasuna, Burdina, Manganesoa, Usaina, Ph, Zaporea, Sodioa.</li> <li>– Usaina, Uhertasuna, Kolorea, Eroankortasuna, Ph, Amonioa, E. coli, Bakteria koliformeak, Hondar-kloro askea.</li> </ul>	<p>Jardueraren hasieran, erabateko azterketa egingo da ura lehen aldiz erabili aurretik.</p> <p>Urte osoa</p>